

Nazioa eta gorputz femeninoa

Nicole Fermon
Fordham University (New York)
Itzultzailea: Eusebio Gorospe

J.J. Rousseauk zuzenean hitz egiten die emakumeei. Eguneroko ohituretan eragin nahi die, gizarte politikoa eraldatu nahian. Montesquieuz gero gurari demokratikoa berriztatzea bere herriko legeen maitasunari lotzen zitzaion. Rousseauentzat, aldiz, herritarraren sortzea korporala eta legislatiboa den ekintza da. Benetako errepublikar batentzat aberriarekiko maitasuna amaren esnetik edoskitzean gertatzen omen da. Amak bakarrik identifika baitezake subjektu politikoa, bere "familia", bere "nazioa". Balkanetako guduan garbi omen dago herritar arraza berri bat sortuz nazioa eraldatzea nahi dela. Eta horretarako bidea amaren gorputza kontrolatzea omen da. Honela gudaleku berezi bilakatzen da emakumearen gorputza. Gai hau sakontzen da.

J. J. Rousseau speaks directly to women. He wants to have an effect on them in their daily habits, in order to change the political society. After Montesquieu the renovation of democratic feeling was related to the love people feel towards their local law. On Rousseau's point of view people's birth is a corporal and legislative fact. He thinks that to a republican the love he thinks towards his fatherland is something he receives from his mother breast-feeding. Only a mother can identify the political individual, family and nation. Rousseau says Balkan War has made us clear that the final aim in creating a new race is to change the nation. He also says the way women's body become a special battlefield. The following article develops this item.

«Hau edo bestea esan, gaur egun ez dago frantziarrik, espai-niarrik ez eta ingelesik ere; europarrak baino ez daude. Ez al zaie berdin euren ugazaba, edo Estatua bera ere, zein diren? Dirua eta emakumeak, besterik ez dute nahi; dirua, lapurtzeko; eta emakumeak, galbideratzeko. Gauza horiek dituztela, bost axola zaie zein herritan bizi diren» (Rousseau 1959, III: 960).

Maisu pentsalariez⁰, filosofoez, eta, plazerraren eta lagun ederretsien bila Eu-ropa zeharkatzen duten era guztietako kosmopolitez egiten du berba Rousseauk. Garaile atera den burgesiaz eta berorrek ezarri duen ordena berriaz ere mintzo da; izan ere, Europak osatzen du gaur egun ordena hori, baina koloniak ere sartuko dira bihar-etzi. Genevako herritarra da Rousseau, eta horrexek ematen dio mundua ikuspegi berezi batetik begiratzeko beta. Gizaldi osoan egon zen Geneva iraultza giroan murgildurik, eta oraindik ere egoera horretan dirau. Frantziaren eraginak zatibanatu egin zituen Genevako fakzioak. Bazuen Rousseauk bere aberrikideek zituzten betebeharren berri, bat egin baitzuen horiekin Frantziako erregearen agin-teari aurre eginez. Nola, baina, aurre egin gatazkaren alderdietako bat salba-tzearren hiria suntsi zezakeen indar kultural, ekonomiko eta militar oldartiarri?

Muga gaindikorrak dituen mundu honek etsitu egiten gaitu, bai. Geure barnean somatzen dugun nostalgiak nortasun nazionala sendetsi beharra dakarkigu. Aberri horrek babestu egingo gaitu eta sendi mitikoa osatuko dugu bertan. «Osasuntsu eta aske» ikusiko dugu geure burua hesi horren ostean. Hesiak, ordea, bazter guztietatik jasango ditu erasoak. Bosnia dugu horren lekuko, egunero azaltzen baitzaigu sutan telebistan.

Gure jatorria eta izan dugun bilakaera politikoa zehazten ditu Rousseauk. Aberriaren jaiotzaz ari zaigu, bere kide guztiak gorputz bakarraren adarrak izango bailiran. Kide horiek osatzen dute, hain zuzen, gure eguneroko talde-bizimodua. Ematen dituen gomendioak xumeak eta arruntak dira. Geroa, eta aberria bera ere, murriztu egin behar dira Rousseauaren ustez; izan ere, «Estatu txikiek, hala errepublikak nola monarkiak, euren txikitasun horrek eraginda egiten dute aurrera». Behar-beharrezkoa da herritarrentzat «estatu horien barruan elkar ezagutu eta azter daitezen». Horren ondorioz, «Erresuma handi» bat «errepublika txiki» bilakatuko litzateke (Rousseau 1959, III: 970).

«Herritarren gorputz hori mutiko batenarekin erka dezakegu; aldi berean hartzen baititu, alde batetik, gizatasunaren heziketa, eta bestetik, herritartasunaren heziketa. Begiak zabaldu bezain laster “aberria ikusi behar du” mutiko horrek. Aberria bereganatze hori ez du legeen eta erakundeen abstrakzioetik bakarrik somatzen; areago, errepublikarra den aldetik, emakuzmekoaren gorputzaren arrasto ahaltsuaren bitartez esperimintatzen du abertzaletasunaren eskarmentua. Eta hori, haragien arteko loturak ahalbideratzen du; lotura hori, benetako errepublikar batek aberriarekiko maitasuna amaren esnetik edoskitzen duenean gertatzen da, legeen eta askatasunaren bidez hain zuzen» (Rousseau 1959, III: 966).

Hainbat aldaketa politiko onuragarri, Rousseauaren ustez, gorputzak aldatuz gero baino ezin dira gauzatu. Abertzaletasuna da ezarri nahi duena, ez naziona-

0. Artikulu hau aldizkari honetarako ingelesez idatzi eta euskaratua da.

lismoa. Gizarte jakin bati atxiki nahi zaio, bizimodu zoriontsuan eta ongizatean oinarritutakoari alegia. Guztiori izaera nazionalaren botere eta aintzaren gainetik. Destinoaren eta abertzaletasunaren gurariak, guda eta konkista alegia, antzematen ditu Rousseauk: «Inoiz gudaren bat bada Europan, halabeharrez egongo zarete bertan nahastuta. Zoriontasunak lepoa ematen badizue, pertsona legez lehengora itzul zaitezke; areago, beste batzuk ere konkista ditzakezue». Nazioen arteko guda eta gatazkek euren bizitokiak lekualdatu behar izan dituzten pertsonen eta beste herrialde batzuetatik etorritako pertsonen osatutako mundua ekarri du. Hiria, familia edo etxea galdu dutenak, ordea, euren kultura edo lurralde-erreibindikazioei estekatzen zaizkie. Lurraldeak, mendiek, ibaiek edo Mostarren suntsitu berria den XIV. gizaldiko zubi zoragarriak jendeen oroitzapenean dira, narratutako istorioetan; eta horietaz gain, keinu, adierazpen eta mentalitateetan.

Gudetan jaurti ohi diren salaketak lurraldeak galtzea baino ekintza larriagoak dira. Lurralde konkistatuetan emakumezkoak jendaurrean bortxatu ahala, gizonezkoak, zahar eta gazte, masakratu egin dituzte. Gudaleku bilakatzen da emakumezkoaren gorputza. Guda horren berri zehatza dugunez, egungo ikasgai politikoa emakumezkoaren gorputzarengan ezartzen da; herritar arraza berri bat sortuz nazioa eraldatzea lortzen denean bakarrik eskura daiteke garaipen argi eta garbia. Amaren gorputza da horretarako bidea. Emakumezko hori jendaurrean bortxatu dute; eta maiz espetxeratu ere bai, seme-alaba jaio arte; umetxo hori izango da herritar berria. Inbasorea ezingo da, dagoeneko, zigorrik gabe egotzi. Ekintza horrek, goikoen hausnarketaren ondorioz eta aginduz burutu denak, erantzukizun zibikoa du bere gain, baina politikoa ere bai. Horixe baita, izan ere, arma guztien garaipenaren azalpenik argiena.

Bortxaketa kolektiboak badu, bestalde, berezkoa zaion mekanismoa, gizonengan izugarriko beldurra sortzen duena, alegia, atzerritar baten aita dela jakitea. Etsaia erabat suntsitu beharra dakar horrek, aita legitimoa, horren ondorengoak eta etorkizuna bera ere bai.

Haur bat izango bailitzan asmatu eta sortzen da herritarra. Bere muga fisikoak bulneragarriak dira. Horrexegatik hartzen du kontuan, Rousseauen egitasmo politikoak, gure izaeraren "benetako" funtsa. Trebezia bereziaz garatzen ditu abertzaletasunaren eremua eta horren sorburua, hau da, gorputz fisikoen maitasuna eta begiradaren poztasuna. Gure herria eta geure-geurea den biziera inbaditu dituztenak garaitu nahi dituztenen eta euren lurraldeetan bakea ikusi nahi dutenen borrokak setatia eta etengabekoa izan behar du, askatasunaren aldekoa.

Legeei eta askatasunari zaien maitasuna eta aberri-nazioarekikoa gauza bera da. Herritarrari dagokionez «maitasun horrek guztiz betetzen du bere izatea; bere ikusmiran aberria baino ez du; eta ez du beste helbururik, hori baizik» (Rousseau 1959, III: 966). Arriskuan dagoen gorputz bezala hartu behar da mutiko herritarra. Bere izaera erabat baldintzatzen du komunitate orokorrean irauteko duen moduak; eta ez komunitate horretan bakarrik, nazio aurkarien errebindikazio lehiakorren eremu zabalean ere bai. Hala ere, mutiko horren begirada eta ekintzak gidatzen dituen aberriarekiko maitasunak ahuldu egiten du. Zatituta eta erabat suntsituta geldi daiteke; izan ere, herritarra hil egiten du bakardadeak. Rousseauk dioenez «bere burua bakarrik ikusten badu, ez dago ezertarako». Aberririk gabe

ez du iraungo; heriotza, egoera horretan, ez da okerrena.

Rousseauren testu nazionala irakurri dut. Osakeraz mintzo da bertan; bakar-kako, taldekako eta nazio-mailako izaeraren taxutze geografikoa, politikoa eta soziala eztabaidatzen ditu hain zuzen. Rousseauk, errusiarrek konkistatutako Poloniak zuen gatazka politiko bereziaren aurrean, okelajaleak diren nazioentzat bazkaleku izan daitekeen poloniarren irudia agertzen du. Ildo horretatik, politika rabelista proposatzen du digestio txarra egiteko: «Irentsi irentsiko zaituzte bai, baina digestio txarra izan dezatela behintzat...» (Rousseau 1959, III: 960). Irenste horrek Jonasen izuikarak gogorarazten dizkio Rousseauri, eta guri ere bai; hots, irentsita bai, baina jakinaren gainean. Agian gizadiak ulertu ahal izango du animalien atsekabea; hain zuzen ere, gure lehenengo okela-janari bilakatzen deneko atsekabea. Animalioak gu bezalakoak dira ia-ia, arestiko gure bizilagunak. Aholkua ere ematen digu Rousseauk, beste kolektibo horrentzat elikagai bilakaturik egon eta modu politikoan erreakzionatu behar duenaren pasibitatearen aurka. Tiranoei gerra egingo dien herritartasun militantearen aldeko aldarria egiten du.

Genevako herritarra den Rousseau atzerriraturik bizi izan zen bere borondatez, baina baita hartara behartu zutelako ere. Erridikulizatu egin zuen bere aberrikide filosofo argitsuen kosmopolitismoa; izan ere, frantziar jatorrak izatearren euren aberrian bizitzeari eusten baitzioten. Barregurea ematen diote gizonezko horiek; gizatasunarekiko grina azaltzen duten arren, baztertu egiten baitituzte agizko betebeharrak. *La Nouvelle Héloïse* eleberrian frantziarrak aipatzen ditu, politikariak eta bai “jauntxo harropuzak” ere iruzurgiletzat joz. Pariseko emakumezkoak, ostera, laudagarriak dira. Eta hori ez da erraza Parisen, albokoen kezkek ez baitute ia inor kezkatzen. Emakumezkoak baino ez dituzte hurbil sentitzen egoera zehatzak, gizagaixoen arazoak alegia; ez dira, gizonen antzera, Estatuaren eta nazioaren eztabaidagai garrantzitsuez solastatzen.

Rousseauk, Antzinakoekin batera, borroka erretoriko eta politikoari ekin zion burgesia modernoaren iruzurraren aurka; eta berorrek dituen pribilegio feudalen eta aditzera ematen duen arrazionalismo egoistaren aurka. Entziklopedistek, oro har, eta bereziki Voltairek eraikitako herritartasun kontzeptuari egiten dio borroka Rousseauk (Rousseau 1959, III: 18-19). Abertzaletasuna, Voltaireren ustez, legearen arabera bizitzea da. Erroak bota ez dituen kosmopolitak Errepublika du lokarri, era batekoa edo bestekoa, askatasunean bizi dadin eta bere iritzia ere askatasunean emateko. Herritar bakoitzak izango du aukera bere eskubideen alde egingo duen sistema juridiko bat suspertzeko.

Gure herria maite badugu, Voltaireren ustez, gure “interesak” asetzen dituelako da. Nork bere aterpean lasai asko lo egiteko eskubidea izan behar du gizakiak, eta ez izan beldurrik besteren batek beste aterpe horretatik botako zaituenentz. Fortuna eta bizia ziurtatu behar zaizkio gizaki orori. Gizabanakoen interesak izango bailiran hartzen dira ezaugarriok. Voltairek, ordea, orokorrean ere garrantzizkoak bilaka daitezkeen nahi du: «Geure alde egiten dugun neurrian egiten dugu Errepubli-

1. Voltaire, *Dictionnaire Philosophique*, ed. Julien Benda et Raymond Naves, (Garnie: Paris, 1954), 335 or. 1765. urtean argitaratutako artikulua.

karen alde»¹. Hori horrela izango ez balitz, Voltairek gehiago nahiko luke beste herrialde bat, "norberaren garapen" asetzaila bideratuko lukeena. Gure interesek, ordea, hamaika bidexka dituzte, bata bestea baino bihurriagoa, azalera nekez kanporatzen direnak alegia.

Nazionalismoaren adierazle modernotzat dugu Benedict Anderson. Bere ustez «maitasuna darie nazioei; maitasun erabat altruista sarri» (Anderson 1983). Kolonizatutako herriek ere sentimendu bortitzak bizi dituzte lekuan lekuko (eta garaiko), jaiotzako, adineko, sexuko eta azalaren koloreko elkarrekin, nahiz eta oso baliagarriak diren kontrako arrazoiak egon. "Maitasun politikoa" deitzen zaio horri. Iraultzak bultzatzeko arrazoiak, Andersonen ustez, bi dira, bizi-kalitate hobea eskuratzea «banatutako zorientasunaren baldintza da Rousseauentzat» (Anderson 1983, 144), eta helburu materialak lortzea.

Antzinako bertutearen eta herriarekiko maitasunaren kontzeptuak zabaltzerakoan itzelezko garrantzia aitortu behar zaio Montesquieuri. Greziarrek gauza partikularrekiko eta euren hiriarekiko zuten maitasuna azaltzen du; herritarrek leku jakin batekiko eta horko elkartasun pertsonalekiko duten hunkimendua. «Aberria maitatzeari deitzen zaio bertutea Errepublikan, berdintasuna maitatzea alegia. Ez da, ez, bertute morala, ez eta kristauen bertutea ere; bertute politikoa da»².

Legeen espirituak era nabarmenean eragin dio ideal demokratikoa berrizatzeari. Montesquieuk izan zituen sineskera juridiko eta sozialek argiro eragin dute hainbat autorerengan, hots, Rousseau, Voltaire, Diderot eta Tocquevilleregan Frantzian; Beccariarengan Italian; eta Jeffersonengan EEBBetan. Montesquieuk deskribatzen duen gizakiari «bere herriko legeekiko maitasunak daragio».

Hazkuntza ekonomikoari mugak jarri beharra ere azpimarratzen du Montesquieuk. Herritarrengan eragin kaltegarriak izango lituzketen desoreka nabarmenak ekarriko lituzke horrek. Ez da sustatu behar diruak duen erakargarritasun pertsonala edo politikoa; areago, mugatu egin behar da errepublikaren lurraldea. Bere interesengatik bakarrik diharduen herritarrak ikaratu egiten du Montesquieu, izan ere, «ondasun komunaren gainetik mila kontsiderazio jartzen ditu». Interesak pertsonalegiak badira «ahaztu egiten da gure zorientasunaren iturburu komuna». Montesquieuren garaian eta inguruan horrela jokatuko lukeen gizakia «bakardade itzelean egongo litzateke bere aberriaren hondamendiaren erdian». Gaur egun era horretako gizaki asko ditugu; baina ez daude bakardadean.

Rousseauk, poloniarren arazo legalei buruz galdetu zitzaionean, talde-izaera azpimarratzen du. Jarrera horrek jartzen du herri bat nazionalitatearen bidean; halaber, gatibutasunak eta bizioak gaiztotutako herriak bereoneratu egingo ditu izaera horrek. Nazioa ikuspegi orokor batetik aztertu ondoren, Rousseauk bere harridura azaltzen digu, zaila egiten baitzaio oraindik ere bizirik dirauela sinestea. Erraldoia da nazioa, bere mugimenduak astunak dira, koordinaziorik gabekoak; egoera horretan, ezinezkoa da bere jarduna eraginkorra izatea. Horretaz gain, badira beste egoera batzuk arazo gehiago dakartzatenak, hots «entitate horretako osakideen artean hildako asko daudela, eta alboratuta dauden osaki-

2. Montesquieu, *Oeuvres complètes*, ed. Roger Caillois (Gallimard: Paris, 1951), II. liburukia, 362 or.

deen kopurua txikia dela». Ez du ahalmenik bere burua eta mugak defendatzeko; beraz, gorputz horrek lurra jotzen du «bospasei bider gizaldi batean zehar». «Indargetu egiten denez burutu nahi duen ahalegin bakoitzarekin», miraritzat jo behar dugu gorputz politikoak oraindik ere irautea. Ildo horretatik idatzi zuen Frankenstein doktore jakintsuaren figura sortu zuen Mary Shelley andreak, alegia, «it lives», “bizi” zioen munstroaz ari zenean. Estatuak, nazioak, gorputz politikoak, aurrera dirau.

Nola interpretatu, garatu eta eratu izaera kolektiboa, herri osasuntsua eta jendetsua ekarriko lukeena? Herritarra jaiotzea da, Rousseuren ustez, abiapuntua; korporala eta legislatiboa da ekintza. Horretan datza, hain zuzen ere, nazioaren benetako eraketa.

Gizartea agertzearekin urrundu egiten da haurra familatik. Familia hori, egia esan, gune publiko –baita pribatua eta norberarena ere– bilakatu dena eraikitzeak zaindu eta indartzen du. Gizonezkoen agindupean dago. “Heziketa nazionala”ren esku uzten du du familiak semea. Gizaki askeen aldekoa da hori; horrela diosku Rousseauk berak «horiexek baino ez dute egiten elkarbizitza» (Rousseau 1959, III: 96). Familiak, Rousseuren ustez, ez du inolako aginterik gizabanakoarengan, ez eta era pertsonaleko errebindikaziorik ere. Gizartearekiko harreman fiduziariora du.

Haur herritarraren gorputza eta bihotza mirestu egiten ditu familiak, baina komunitatearen eta, oro har, espeziearen onurarako. Heziketa, ohiturak eta gustuak bereganatzeko hainbat bide ditu haur herritarrak. Eginkizun horretan leku berezia hartzen du familiak, esperientzia intimoak eta sozialak ematen baitizkio. Eredu pribatua den arren eremu publikoaren eta Estatuaren bidegarritasun sentimetalaren erantzukizun gehien duena, bi eremu horietan printzipioak ezberdinak dira. Batean ezberdintasuna da nagusi; bestean, ordea, gehiengoaren borondatea.

Gizakiak askatasunean bizi badaitezke, bizitza politikoaren eraginez da. Nazioa eraiki behar denean –poloniarrek dira horren lekuko–, elkartasuna eta aberriarekiko maitasuna sortu eta bereganatu egin behar zaizkio herriari. Ondorioz, eremu orokorra hartzen duen familia, nazioa alegia, oinarria da gizaki askeentzat; eta heriotza bizilekua da emakume amentzat. Aipatutako gizakiok dira Estatu demokratikoaren euskarria. Ez dago bide gehiagorik aukeran. Errorrik bota ez duten kosmopolitek ez dute heziketa nazionalik bereganatu; edo, agian, ez dute demokrazia ahalbideratzen duten dohainak eurenganatzeko gaitasunik.

Bada, hala ere, eragozpenik nazioaren eta bere lurtean aske bizi nahi duen gizabanakoaren arteko menpekotasun estuaren kontrakoa. Horrexen aurka, hain zuzen, ohartarazten zuten XVIII. gizaldiko pertsonaiek: gauza partikularrekiko atxikimenduak gainerakoetsai bihurtzen gaitu, hots, geure modukoak, geure lagunak eta geure arerioak etsai. Estatu-nazioa eraikitzerakoan hainbat arrisku azalduko zaizkio Poloniar Rousseuren ustez, alegia «poloniarrek biziki maita dezaketela euren herria, baina atzerritarrekin nahasteak nazka eman diezaiekeela».

Hortik, bada, drama nazionala saloiko komedia bailitza har daiteke. Gatazka sakona agertzen da herritarkideekiko duzun maitasunaren eta atzerritarrenganako antzematen den nazkaren artean. Horrelako jarrera hartzen du bata besteari aurrean. Mesprezu hori lagungarri zaigu euren burua asketzat duten herrien

jarrera ulertzeko; ingelesak ditugu horren lekuko. Roussearentzat ingelesak dira, izan ere, Estatu liberal moderno bateko herritar eredugarriak; hala ere, botoa ematera doazen bakoitzeko soka jartzen dute eztarrian; baina euren borondatez!

Rousseauk duen helbururik behinena ez da poloniarren nazioa sortzen laguntza ematea; herritar onak sortzen baizik. Kasu bakoitza eta tradizioa ezagutzea eskatzen du horrek, "sentsibilitate publikoa" landu ahal izateko. Jokaera horrek egoskor bilakatzen gaitu herri bat osatzen dugun aldetik. Horixe bera gertatu zitzaizen Moisesen juduei. Guk ere kultura bereziari eutsi diogu heziketa nazionalarekin batera.

Askatasunaren onerako, poloniarrek, frantziarrak edo italiarrak gara. Nazionalitate hoberenak ere nazionalitate-premiarik gabe iraun beharko luke. Jainkoek baino ezingo lukete hori lortu. Errepublikak bat, gizakiz osatutako estatu bat alegia, erakunde askeetan baino ezin da oinarritu, euskarri legez herriaren kultura, tradizioa eta hizkuntza izango lituzketenak. Estatu-mota horren eredu, errusiarren aurkako borrokan poloniarrek lor dezaketen estatua da.

Gorputz politikoaz baliazterakoan «subiranotasuna jatorri-jatorritik zatitzea...» baino bilatzen ez duten politikoak salatzen ditu Rousseauk, Kontratu Sozialean. Errepublikak eta demokraziak aukeraren bat izan dezaten, Rousseauk, gorputz politikoaren alderdiak biltzen dituen subiranotasunaren arazoa konpondu baino lehen, beren-beregi kritikatzeko dituen politikariak: «subiranotasuna ametsezko zerbait bihurtzen dute». Badirudi gizakia hainbat gorputzen artean lotuta gelditzen dela; batak begiak izango lituzke, besteak besoak eta hirugarrenak hankak. Japoniar berbatsuek, diotenez, zatitu (atalkatu,...) egiten dute haurra, ikusleak adikor begira dituztela. Gero, airera botatzen dituzte gorputz-atalak bata bestearen ostean, eta laurdenkatutako haurra bizirik eta gorputz osoa duela jausten da lurrera. Ferianteen jai bati bete-betean dagozkion prestidigitazio-ariaketen bidez zatitu ondoren "gorputz soziala", berriz ere batu egiten dituzte, Jainkoak bakarrik daki zelan (Rousseau 1959, III: 64-65). Gorputz politikoa lehengoratzearen aldekoa da Rousseau.

Elikagaiei buruzko metaforen ildotik, Rousseauk honako hau dio elikagai onuragarria da askatasuna, baina digestio astunekoa; urdail ezin hobeak behar dira horri eusteko (Rousseau 1959, III: 974). Nork du urdail osasuntsua? zer da Roussearentzat "gorputz osasuntsua"? nola jabetu gorputz horretaz? nola produzitu eta erreproduzitu? Hasierako gaira garamatza horrek. Askatasun politikorako gertu egoteko behar-beharrezkoa da jaioberriaren xalotasuna edukitzea, nahiz eta jaioberria ez izan dirudien bestean xaloa.

Ez gatzoz mundu honetara bakardadean, emakume baten gorputza zeharkatzen baitugu. Rousseauk beretzat hartzen du gizartearekiko lehenengo harreman hori. Harreman hori mugimenduan dauden gorputzen artean ematen da, ziztu bizian eman ere; eta ondoren eremu eta inguru politikoei aplikatzen die. Nahiko buruhauste ematen dio nazionalismoari emakumearen amesgaiztoak. Rousseauren ustez emakumea da ama, eta bera da gurasoak nahasten dituena. Berak, eta ez beste inork, legitima ditzake seme-alabak, berak baino ezingo die izena eman. Amak bakarrik identifika dezake subjektu politikoa, bere "familia", bere "nazioa".

Hainbat testutan, hots, lan politikoenetan eta bere eleberrietan, Rousseauk zuzenean hitz egiten die emakumeei. Eguneroko ohituretan eragin nahi die, gizarte politikoa eraldatu nahian. Emakumea –amatasuna hobeto esanda– erreformako lan garrantzitsuenen gai topikoa da. Bada gaur egun egun ere literaturarik, hasi Mary Wollstonecraft-engan eta teoria feminista garaikidean amaituz, gai horretaz Rousseauk duen ikuspuntua ulertu nahi duena.

Emakumezkoak politiko teorikoarentzat duten erakargarritasunaz idatzi du, besteak beste, Kristevak. Emakumea, maila politikoan krisialdi bati aurre egin behar dionean, betirako disidente bihurtzen da, nahaste handiagoetarako abiapuntua alegia. «Boteregunetik urruti dago; eta horrexegatik da, hain zuzen ere, berezia, banatua, deabruaren parekoa, sorgina...»³.

Doilorra izateak, Kristevaren ustez, amaren urruntzea esan nahi du, hitz egiten duen subjektuaren ezegonkortasuna «izaera, sistema eta ordena nahastu eta molestatzen dituenarena». Emakumeak «ez ditu errespetatzen mugak, jarrerak ez eta arauak ere». Kristevaren ustez gorputza eta pultsioak hizkuntzaren barruan artikulatzen dira; eta esanahiaren logika gorputz materialean aurki daiteke. Horrek eskaintzen duen egoera preedipikoa da, hots, bikoa osatzen duten gorputz bi dira, bai, baina banakoa ere osatzen dute. Hortik dator, etorri ere, harreman horri darion amorru hiltzailea. Norbere arazoan eta ahalmen politikoaren irtenbide legeaz azaltzen da Kontratu Soziala. Eta hori horrela da, hitzarmenak edo kontratuak, beste eragin batzuen artean, «asanbladak dituen bozak bezainbeste kidez osatutako gorputz moral eta kolektiboa» (Rousseau 1959, III: 84) ekartzeaz gain, bere kideak bereganatzen dituen kontratu barru-barrukoa ere bada karrelako. Rousseauk dioenez “aberriarekiko maitasuna” «maitale baten maitasuna baino ehun bider atsegingarriagoa da» (ibid. 255).

Rousseauarentzat, alor sinbolikoa –hots, aitarena, identitatearena, sistemarena eta ordenarena–, emakumearen mehatxupean dago. Baina gizakiaren gorputzaz baliatzeko ardura du, apalagoa eta bulneragarriagoa baita, eta gizakiaren eta Estatuaren esperientzien eskuragarri utzi nahi da. Amaren izenean dihardu Estatuak; baina aitaren eta herritarren arteko maitasun “politikoen” interesean dihardu. Rousseauk (ibid. 84), legislatzaile guztiek bezala, gizakiaren izaera bera aldatu nahi du, eraldatu egin nahi du gizabanakoa eta zabalagoa den osotasunaren zati bilakatu nahi du. Horra hor bere buruhaustea: osotasun zabalago horren parte izatea, baina bere izaera guztiz galdu barik. Hori da feminitateak sortzen dizkion ezinegonetariko bat; eta horrexegatik, hain zuzen, idazten du emakumeez zuzenean. Badu zeresanik, bai, feminitateaz eta horren jarrera politikoaz eta sozialaz.

Kristevak, amari buruz egin duen deskripzioan, “fantasmatzat” hartzen du; eta bakoitzaren historia berezian, leku autonomo denez (eta ez inbaditzailea) ezarri behar den amildegia ere osatzen du; objektu ezberdina da, beraz. Mugek gaindikorrak izan behar dute. Arazo horixe aztertzen du Rousseauk; subiranotasunaren kontzeptua era korapilotsuan aztertzen du. Gizakume guztiek parte hartzen dute subiranotasunean; zabalagoa den multzo baten zati dira alde guztietatik; izan ere, subiranotasunari zor diote bizitza politikoa. Hala ere, bakoitzak askatasuna eta

3. Kristeva, Julia, *Polylogue*, (Editions du Seuil: 1977), 488 or.

autonomia osoa du ikuspuntu emozionaletik. Horixe da, benetan, Kontratu Sozialak aurkezten digun auzia. Gizabanako bakoitza subiranotasunaren atal bat den arren, ez da inoren agintea ez eta boterea ere gailenduko. “Lehen bezain askeak” gara; edo, behintzat, guregandik sortutako lege bakarren menpe gaude: lotura gorena dago bere baitan ni naukan osotasunaren eta liluratzten eta izutzen nauen arrotzen unibertsoaren artean.

Benetako gorputza, eta propioa baita ere, aipatzen ditu Kristevak, alegia «singularizazio biologiko eta psikikorako funtsezko muga» ezartzen duena (1982: 101). Amaren gorputza antzematen du Rousseau umezurtzak «amarik onenak bere bizia utzi du», “ama-aberri ona” da ama hori; honek gozatu egiten du «bere haurrak jolasean ikusiz» (Rousseau 1959, III: 962), ametsa daragiola. Kristevak gogoratzen digunez «ama-erahilketa hil ala biziko premia da guretzat»⁴. Areago, nahitaezko baldintza da gizabanakoen izaera lortzeko. Gizonen arteko kontratu sozialaren beste alderdia emakumeengan gauzatzen den kontrol errukigabea da, berdin diola gerra garaia zein bake garaia izan (bake hori gizonen artekoa baino ez da izango). Gizona otsoa bada gizonarentzat, zer ez ote da izango emakumearenganako? Amek eta emakumezkoek jasan behar dituzten ondorio latzez ohartarazten gaitu Kristevak.

Bere herria maitatu ahal izateko, gai izan behar du herritarrak bere amaren heriotza onartzeko. Bideratu eta jagon egin behar du behar-beharrezkoa den heriotza hori. Kristevak dioskunez, ekinga horren gai den gizabanakoak zera adierazten digu: «galdu dudana funtsezkoa da niretzat; nire ama da, horixe bakarrik, nire ama ... Beste bide edo ikur batzuen bidez iritsi naiz berarengana ordea. Beste berba batzuekin esanda, galtzea onartu egin badut ere, ez dut galdu –hona hemen ukazioa–, hizkuntzaren bidez neurengana dezaket berriro» (Kristeva 1989: 43). Berreskuratze hori, besteak beste, Rousseuren Kontratu Sozialaren bitartez erdiets dezaket. Gizakia –erabatekoa eta autonomoa dena– eralda daitekeelako irudia du Rousseauk bere buruan; hain zuzen ere gizarte eta politikaren gaietan subiranoa izango den gizakia «osotasunean zabalagoa denaren zati bat». Rousseuren egitasmo politiko luzea, Kontratu Sozialean azaltzen dena, ez da gizaki moderno bat eraikitzea bakarrik, Leviatan mekanikoa hain zuzen; areago doa, “ama komuna” eraikitzea da; eta hori, Rousseurentzat, askatasun komuna da. Hara hor gakoa eta bere “ebazpena”: nola irakatsi eta azaldu askatasuna irudiaren bidez ez bada? eta nola azaldu errealitatea, koakzioaren bidez ez bada?

Page du Bois historialariak erakutsi digunez, antzinako gizarteak, gorputzetik bertatik egia lortzeko torturatzen zituen esklaboak; izan ere, ezinezkoa da jabeengandik lortzea. Emakumeek domestikatuak dituzte, Rousseuren ustez, gizonak; eta hori, gizonazkoei atsegina eskaintzeko hezita egon eta horien menpe dagoen arren. Sophie da horren lekuko, hezitu egiten baitu Emile. Estatuak eta horren legeek ez dute inolako aginterik ohituretan; Rousseauk, ordea, ondo baino hobeto ezagutzen du emakumezkoak prozesu honetan duen jokabidea.

Rousseuren Bigarren Diskurtsoan agertzen den ohar autobiografikoak bere hiria, Geneva, maite duela adierazten digu. Den-deneantxe maitatu ere. Edo berari

4. Kristeva, Julia, *Black Sun*, (Columbia University Press: 1989).

iruditzen zaion eran, moralitaterik gabeko frantziar edo beste europarrak sortzeko: Geneva errepublika bertutetsua da. Absentzian oinarritzen da maitazarre hori. Askatasunari diogun maitasunari eta askatasun hori taldean bizitzeari darien arazoa dakarkigu gai horrek. Liskarbidezko egoerak eta gehiegikeriazkoak agertzen dira hor. Norberaren nahimenek apurto eta ahuldu egiten dute bakea. Herri bat osatzen dugun aldetik lasai bizi nahi dugu; eta bien bitartean jaiotzeak ekarri dizkigun atsekabeak pairatu beharko ditugu. Geroago, anarkian eta istiluetan nahasturik egon gaitenez, hautatu egin beharko dugu: «lasaitasunak eta askatasunak ez dute batera joaterik» (Rousseau 1959, III: 955). Hitzarmen eta itunek, herriak ez lotzeaz gain, ez diete uzten indar zanpatzaileei uko egiten. Poloniako herria da horren lekuko, Errusiaren menpekotasuna uzteko ahaleginetan baitabil. Berdin gertatzen da gainbeheran dagoen gizarte bat, Frantziakoa alegia, eraldatzeko gai direnekin ere. «Nola, bada, lor daiteke bihotzak ukitzea, eta aberriarekiko eta legeekiko maitasunean areagotzea? Ausardiaz beteko naiz, eta esango dizuet: haur baten begietatik; azala baino erakusten ez duten gizakiei ezertarako balio ez dieten erakundeen bidez, nahiz eta ohitura saminak eta lokarri gairak sortu erakundeok» (ibid.).

Rousseauk bazekien jakin, atzerriratu ospetsu baten hitzak, herritarren pozez eta lokarri intimoez aritzerakoan, arinkeriak baino ezin zirela hartu. Luzaro egongo da Genevatik erbesteraturik. Gaur egun erbesteratuez gainezka daude Europako hiriak. Ez dute, ez, denek herria euren kabuz utzi; Jean-Jacques dugu horietariko bat. Denek nahi dute, ordea, euren herrietara itzuli. Itzulerak, baina, hainbat destinetara eraman gaitzake.

Montesquieuri ematen diot berba, barne-hierarkian ordena jartzen baitu:

Baliagarria izan dakidakeen zerbaiten berri izango banu, baina kaltegarria izango balitz nire sendiarentzat, uxatu egingo nuke nire espiritutik. Nire sendiarentzat baliagarria izango balitz, baina ez ordea aberriarentzat, ahazten ahaleginduko nintzateke. Nire aberriarentzat baliagarria izango balitz, baina kaltegarria gizakiarentzat, krimentzat joko nuke.

Bibliografia

- Anderson, B. (1992): *Imagined Communities, Reflections on the origin and Spread of Nationalism*, Verso, Londres, 1983.
- Armstrong, J. A. (1982): *Nationalism before Nationalism*, The University of North Carolina Press, Chapel Hill.
- Barnard, F.M. (itz. eta arg.) (1969): *Herder on Social And Political Culture*, Cambridge U.P., Londres.
- Bauman, Z. (1989): *Modernity and the Holocaust*, Cornell U.P., Ithaca N.Y.
- Berlin Isaiah, V. & H. (1977): *Two Studies in the History of Ideas*, Vintage, New York.
- Bynum, C. W. (1995): *The Resurrection of the Body in Western Christianity, 200-1336*, Columbia University Press.
- Connolly, W. (1989): "Identity and Difference in Global Politics" in Der Derian, J. eta Shapiro, M. J. (arg.), *International/Intertextual Relations, Postmodern Readings of World Politics*, Lexington Books, D.C. Heath and Company, Lexington, 323-342 or.
- Darrow, M. (1979): "French Noblewomen and the New Domesticity, 1750-1850", *Feminist Studies* 5, 41-65.

- De Jean, J. (1984): *Literary Fortifications, Rousseau, Laclos, Sade*, Princeton University Press, Princeton.
- De Man, P. (1979): *Allegories of Reading: Figural Language in Rousseau, Nietzsche, Rilke, and Proust*, New Haven, Yale University Press.
- Du Bois, P. (1991): "Torture and Truth", *The New Ancient World*, Routledge: New York.
- Dunn, J. (1990): "Western Political Theory in the Face of the Future", *Nationalism*, Cambridge University Press, Cambridge 1979, 55-80 or.
- Elshtain, J. B. (1989): "Freud's Discourse of War/Politics" in Der Derian, J. eta Shapiro, M. J. (arg.), *International/Intertextual Relations, Postmodern Readings of World Politics*, Lexington Books, D.C. Heath and Company, Lexington, 49-60 or.
- Foucault, M. (1980): *Power/Knowledge: Selected Interviews & Other Writings, 1972-1977*, (ed.) Colin Gordon, Pantheon, New York.
- Gearhart, S. (1984): *The Open Boundary of History and Fiction: A Critical Approach to the French Enlightenment*, Princeton University Press.
- Gordon, D. (1994): *Citizens Without Sovereignty: Equality and Sociability in French Thought, 1670-1789*, Princeton U.P., Princeton.
- Greenfeld, L. (1992): *Nationalism Five Roads to Modernity*, Harvard University Press, Cambridge, Massachusetts.
- Grosz, E. (1994): *Volatile Bodies, Toward a Corporeal Feminism*, Allen & Unwin, Australia.
- Gutman, R. (1993): *A Witness Genocide*, Macmillan Pub. Co, New York.
- Herf, J. (1984): *Reactionary Modernism Technology, culture and politics in Weimar and the Third Reich*, Cambridge U.P., Cambridge.
- Horkheimer and Adorno (1972): *Dialectic of Enlightenment*, New York.
- Hunt, L. (1992): *The Family Romance of the French Revolution*, University of California Press, Berkeley.
- Kristeva, J. (1982): *Powers of Horror, An Essay on Abjection*, Columbia University Press.
- _____, (1993): *Nations Without Nationalism*, Columbia University, New York.
- Laget, M. (1982): *Naissances: L'Accouchement avant l'age de la clinique*, Seuil, Paris.
- Laqueur, T. (1986): "Orgasm, Generation, and the Politics of Reproductive Biology", *Representations*, 14. zenbakia, 1-41 or.
- Mansbridge, J. (ed.) (1990): *Beyond Self-Interest*, University of Chicago Press, Chicago.
- Mojzes, P. (1994): *Yugoslavian Inferno, Ethnoreligious Warfare in the Balkans*, Continuum, New York.
- Mosse, G. L. (1985): "Nationalism and Sexuality", *Respectability and Abnormal Sexuality in Modern Europe*, Howard Fertig, New York.
- Mossman, C. (1993): *Politics and Narratives of Birth, Gynocolonization from Rousseau to Zola*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Neil, O. (1975): "Lifeboat Earth", *Philosophy an Public Affairs*, 4. liburukia, 273-292 or.
- O'Brien, M. (1981): *The Politics of Reproduction*, Boston, Routledge and Kegan Paul.
- Pateman, C. (1988): *The Sexual Contract*, Stanford University Press, Stanford.
- Rawls, J. (1983): "Laws of Peoples", *Critical Inquiry*, 20. liburukia.
- Rousseau, J. J. (1959): *Ouvres complètes*, ed. Bernard Gagnebin and Marcel Raymond, 5 liburuki, Paris.